

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
73 zenb.
2021eko martxoa



Eraso matxisten aurkako behatokia
- ANOETA -

***Eraso matxistei stop!
Udal protokoloa martxan!***

EUSKARAREN PILULA

METROKO ALA METROTAKO?

OHIKO AKATSAK

(* izartxoak duten esaldiak gaizki daude)

1. * Langile guztiek urtean **lau astetako** oporrak hartzeko eskubidea daukate.
2. * Urte guztiko ekintzak egiteko **3.000 eurotako** aurrekontua daukagu.
3. * Mendi gutxi daude **8.000 metrotako** garaiera dutenak.
4. * Nire etxetik lantokira **15 kilometrotako** bidea dago.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Langile guztiek urtean **lau asteko** oporrak hartzeko eskubidea daukate.
2. Urte guztiko ekintzak egiteko **3.000 euroko** aurrekontua daukagu.
3. Mendi gutxi daude **8.000 metroko** garaiera dutenak.
4. Nire etxetik lantokira **15 kilometroko** bidea dago.



Hau da Euskaltzaindiaren araua:

*“Oinarrian **zenbatzaileraren bat ageri denean** eta adina, prezioa, neurria, pisua, adierazten duten izenlaguak osatzen direnean ere, **-ko** da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz, bi urteko umea, bost liberako egunkaria, hiru kilometroko bidea, hamar metroko garaiera, hiru asteko egonaldia, e.a.”*

Arau hau NONGO kasurako dago emanda, eta ZENBAKI bat daramanean.

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (otsailaren 11)	1.014	1.074	2.088
JAIOITZAK (urriaren 27tik otsailaren 9ra)	Martina Kima Elene	Amets Neytham Gale	5
HERIOTZAK (urriaren 27tik otsailaren 9ra)		Ignacio Bernardo Miguel	12

INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEN DIOTEN EMAKUMEEI

ARRETA EGOKIA BERMATZEKO UDAL PROTOKOLOA MARTXAN!

Indarkeria sexista errotuta dago gure gizartean, eta denok eman behar ditugu urratsak hori desagertu eta gizarte parekideago bate lortze ardera.

Hortaz, bidea egiten hasi ginen herriko festekin. Herriko festa parekideagoak antolatzeko asmoz, lanketa bat egin genuen 2017an, irizpide batzuk finkatzeko eta festetako emanaldiak antolatzeko garaietan kontutan hartzeko. 2018an protokolo bat landu genuen, herriko festetan erasoren bat gertatuz gero, nola jokatu eta erantzun publikoa nola bideratu zehazteko.

Azkenik, 2019ko irailean hasi ginen udal protokolo orokorra diseinatzen, indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakumeei arreta egoki bat bermatzeko.

Horren harira, batetik arlo interinstituzionala lan-tzen hasi ginen (Anoetako Udala, Ertzaintza eta osasun zentroak, Anoetakoak zein Tolosakoak), eta bestetik arlo soziala, non herriko emakume taldeek parte hartu duten, hala nola Anoetako Herri Ikastolako zuzendaria, udaleko hainbat zinegotzi eta teknikarirekin batera.

Tamalez, arlo interinstituzionala nahiko hankamotz gelditu da, Covid dela eta (espero dugu egoera normalizatzen denean gaia berriro esku artean hartzea), baina arlo soziala behintzat bai garrantzugaria, Farapi Kooperatiba Elkarteak gidatuta.

Indarkeria sexistari aurre egiteko prozesuan kontutan hartu beharreko gakoak aztertu ditugu,



hainbat esparrutan (juridiko, poliziala, osasuna, hezkuntza, udaleko Gizarte Zerbitzuak) gaia nola bideratzen den ezagutu dugu, tokiko errekur-tsoen gida prestatu dugu, erantzun publikoa nola artikulatu zehaztu dugu, eta koordinazio eta jarraipenerako egitura bat sortu dugu ere bai: *ADI eta SO! Eraso matxisten aurkako behatokia*.

Hemendik aurrera, gai honekin lotutako gaiak behatoki horretatik bideratuko ditugu, Anoetako Udaleko Parekidetasun Sailak koordinatuta.

Hauek horrela, landutako protokoloa Anoetako Udalbatzara eramango dugu bere onarpenera-ko, udalaren web orrian ikusgai jarriko dugu, eta aurkezpen publikoa ere epe laburrean egingo dugu.

**Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, gizarte
parekideago baten alde!**

EUSKARA



12 urtetan zehar, Anoetako 35 enpresak hartu dute euskara sustatzeko konpromisoa

Euskarak bizitzako alor guztiak behar ditu aurrera egiteko eta, zalantzarik gabe, lan-munduak berebiziko garrantzia du horretan. Gure herriko enpresetan euskararen presentzia areagotzeko asmoarekin, hamabi urtez elkarlanean aritu dira Galtzaundi Euskara Taldea eta Anoetako Udaleko euskara-zerbitzua. 2008tik 2020ra, 35 enpresatan egin da lan euskara sustatzeko.

Enpresak aukeratzean, guztiek antzeko ezaugarriak izatea hartu da kontuan: 50 langile baino gutxiago izatea, eta euskararen erabilera areagotzeko programa zehatzik edo ziurtagiririk ez izatea. Enpresa batzuek proposatutako erronkari heldzea erabaki dute, eta beste batzuek ez. Galtzaundiko teknikarien bitartez, hizkuntza paisaia, idatzizko harremanetan eta ahozko barne zein kanpoko harremanetan eragin nahi izan du Udalak. Urte hauetako prozesuan ikusi da enpresen ahozko eta eguneroko funtzionamendua euskalduna dela, oro har, baina enpresek sarri ez dutela irudi hori ematen. Asko kontura ere ez dira egiten izaera linguistikorik islatzen ez dutela, eta, zentzu horretan, kontzientziazio-lan handia egin da.

Euskararen normalizazioan eragiteko, konpromiso txiki batzuk betetzea eskatu zaie, eta Udalaren itzulpen-zerbitzua ere eskaini zaie. Adierazga-

ria izan da, enpresa batzuen kasuan, aurretik zehaztuta zeuden aldagai batzuk euskaldundu dituztela, beren borondatez: marka, izena edota errotulazioa, esaterako. Enpresa batzuek bultzada txiki bat baino ez dute behar izan pauso esanguratsuak emateko.

Mugak ere begi-bistan

Bisitetan oztopoak eta mugak ere aurkitu ditugu, noski. Izan ere, azken urte hauetan, krisiak gogor jo du lan-mundua, eta agerian geratu da euskararen normalizazioan inbertitzeko dirua falta dela. Aldi berean, esku-hartzea mugatu duten elementuak aurkitu ditugu: enpresa batzuek Euskal Herritik kanpoko bezeroak dituzte eta gaztelaniaz lan egiten dute. Oztopoak oztopo, Anoetako enpresek aurrerapausoak eman dituzte urte hauetan. Bakoitzak bere inplikazio-mailarekin, baina modu eraginkorrean adostuta hartu dituzte konpromisoak.

Lan-munduaren gaia, eskualdean

Tolosaldeko euskalgintzako eragileek identifikatu dute bigarren sektorean euskararen egoera lantzeko beharra. Hemendik aurrera, Anoetako lanketa berezitua eskualdeko estrategia bateratuarekin koordinatzea da asmoa. Tolosaldeko Euskararen Mahaia jarritako helburuen baitan landuko den ekintza-planaren bitartez garatuko dira bigarren sektorean euskara indartzeko lanketak.



EGITASMOAN PARTE HARTU DUTEN ENPRESEN ZERRENDA:

- Aketegi pentsuak
- Anoeta karrozeria
- Arbaraitz banaketak
- Arrospide tailerrak
- Aukeran altzariak
- Aukeran sukaldeak
- Auto-garbiketa
- Autoberri tailerrak
- Azpiazu Moreno bizitegia
- Benta Aldea ardo-biltegia
- Bizkor System
- Enelur
- Ergoien SEAT
- First Stop SEAT
- Focus argazkigintza
- FurgoKoodi
- Geuk
- Goya okelak
- Gurdi kooperatiba
- Gurutze autoak
- Ibarra autoen hornikuntza
- IBK bizikletak
- Irovi SA Citroen
- Itxasi komertziala
- Jamai Technical Services
- Lanbroa gourmet
- Latz tresnak
- Mapi grabatuak
- Maquinados y Montajes SA
- Opel Giauto
- Oria elektrizitatea
- Peru SL
- Rali pneumatikoak
- Tarte
- Zuriarrain iturgintza



Euskara ikasleekin solasean

Zergatik hasi zara euskara ikasten?

Elena Garin: Euskaraz ikastea oso garrantzitsua da niretzat, nire hizkuntza delako. Nire gurasoen gurasoak hemen bizi ziren.

Antxon Lorente: Beste pertsonen esperientziak partekatu ahal izateko.

Gustavo Moreno: Jendearekin komunikatzeko eta herrian integratzeko.

Ludi Perea: Jendearekin hitz egiteko. Gauzak irakurri eta ulertu ahal izateko.

Lehenago ikasi zenuen?

Elena: Orain dela 3 urte etorri nintzen Anoetara. Txikia nintzela, etxean ikasi nuen, baina ez eskolan.

Antxon: Duela urte asko hasi nintzen eta gero utzi egin nuen, orain arte.

Gustavo: Orain dela 3 urte hasi nintzen.

Ludi: Bai, EPAn ikasi nuen duela 6 urte.

Non edo norekin erabiltzen duzu euskara?

Elena: Eskolan, pilatesen, erostetako egiterakoan, lagun batzuekin, bizilagunarekin, eta umeekin...

Antxon: Tabernetan, dendetan eta etxean ere bai batzuetan.

Gustavo: Lagunekin, jatetxean, tabernan, dendan zerbait erosteko.

Ludi: Familiako batzuekin eta lagun batzuekin.

Badaukazu hitz edo esamolde gogorik?

Elena: Zer ikusi, hura ikasi.

Antxon: Non gogoia, han zangoa.

Administrazioak zer egin dezake euskalduntzen laguntzeko?

Gustavo: Informazioa posta elektronikoz bidali.

Elena: Nik uste dut nahikoa egiten duela.

Antxon: Laguntzak mantendu behar ditu, eta informazioa bi hizkuntzetan eman beharko luke.

PAREKIDETASUNA

FORMAZIO SAIOAK UDALETXEO LANGILE ETA ZINEGOTZIENTZAT

Udaleko Parekidetasun Saitetik zeharlerrotasunaren gaia lantzeko formazio saioak antolatu genituen otsailean udal langile zein zinegotzientzat, Berdinbideanek gidatuta, betaurreko moreak janzten trebatzeko, eta departamentu guztietan genero ikuspegia txertatzeko urratsak ematen hasteko.



MINDFULNESS ETA XILOGRAFIA IKASTAROAK MARTXAN!

Parekidetasun departamentutik ahalduz ikastaro batzuen deialdia egin genuen, eta erantzuna ona izan da. Momentuz martxan daude *mindfulness* eta *xilografia*, eta maiatzean emozioak kudeatzeko ikastaroa antolatuko dugu.

Hala ere, jakin nahi dugu zeintzuk diren herriko emakumeon interesak; beraz, bestelako proposamenik baldin baduzue, eskertuko genizueke guri jakinaraztea kultura@anoeta.eus e-mailera, eta saiatuko gara bideratzen.



IRAKURKETA TAILERRA

Irakurketa feminista tailerra martxan dago jada, urtariletik. Hilean behin elkartzen da taldea euskal emakume idazleek idatzitako liburuak aztertzeko, Kattalin Minerren gidaritzapean.

INGURUMENA




MENDI-SAILETAKO GERTAERAK

Pandemia-garai honetan, gero eta gehiago gara Anoetako mendietan gabiltzanak. Pozgarria da jendea naturara gerturatu dela eta inguruaz gozaten ari dela jakitea, baina azkenaldian ugartu egin dira apurtutako itxiturak, puskatutako belar-bolak, ibilgailu motordunekin belazeetan egindako kalteak eta lursailetan agertutako hondakinak. Herriko baserritarrekiko eta ingurunearekiko errespetuagatik, jokatu ezazue zentzuz.



LOREZAINNTZA-ENPRESAREN GUNEA

Ergoien bailaran, Herri Baratzeen parean, Iratze lorezaintza-enpresak kudeatzen duen gunea dago. Bertan, herriko zuhaitzen adarrak pilatzen dituzte, gero horiek txikitu eta auzokonposta guneeetako egituratzaile gisa erabiltzeko. Azkenaldian, gunearen erabilera okerra egiten ari da. Izan ere, belarra eta adaska berde ugari pilatzen ari dira. Hondakin horiek adarrekin nahasten badira, makina birrintzaileek ez dituzte adarrak txikitzen eta, beraz, gunek bere erabilera galtzen du. Herritarrek norbere kabuz ezin badituzte hondakin horiek kudeatu, Tolosako edo Andoingo Garbiguneetara eraman behar dituzte.




TXAKURREN KAKAK

Anoetan ere begi-bistakoa da gero eta txakur gehiago daudela, baina txakurrez gain, zoritxarrez, haien kakak ere gero eta nabarmenagoak dira. Gai hori dela eta, Udalean herritarren kexak ari gara jasotzen. Duela zenbait urte, txakurren jabeekin adostuta, herriko zenbait puntutan txakur-kakak biltzeko zutabeak jarri genituen. Baina, arazoa ikusirik, datozen hilabeteetan gai horren inguruko beste lanketa batekin hasiko gara.

KULTURA

HURRENGO EMANALDIAK:



MUGA DEITZEN DA PAUSOA DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA:

Martxoak 5, ostirala, 18:00
Mikelasagasti auditorioa

Elbira Zipritia omentzen du zinegileak, baita euskal kultura mantentzen eta transmititzen emakumeek jokatu duten rola ohoratu ere. Ikastolak sustatu zituen, eta baita horietan jarduteko irakasle berriak trebatu ere.



AMA-ALU-LUR

Martxoak 7, igandea,
18:00 Mikelasagasti auditorioa

Espek eta Leok, bi espeleo-arkeologok, harri eta zur utziko dituen paleolito garaiko alu erraldoi bat aurkitzen dute haitzulo baten barruan. Baina orduan... Aurreratu, ezer aurreratu al dugu 15.000 urte hauetan?



ZINEGOAK: ZINE GAYLESBITRANS

Apirilak 25, igandea
18:00 Mikelasagasti auditorioa



DEATH-CAFE

Apirilak 16, ostirala
18:00 Mikelasagasti auditorioa

Heriotza, dolua, galerak.... Gai honen inguruan hitz egiteko topaketa batzuk egin nahiko genituzke, Urbizixa elkarteak dinamizatuta. Apirilaren 16an Aulki hutsak dokumentala proiektatuko dugu, eta ondoren solasaldian arituko gara goi hone-taz. Jendea gustura gelditzen bada, eta interesik badu, hortik aurrera jarraipena emango diogu, eta finkatuko dugu zein maiztasunarekin elkartu.

GIZARTE ZERBITZUAK

Anoetako adinekoekin telefonoz harremanetan jartzen hasi da udala, haien egoera eta beharrak lehen eskutik ezagutzeko

Joan den astean adinekoen telefono deiak egiten hasi ziren Anoetako Udaleko gizarte langileak. Herrian, guztira, 75 urte baino gehiago dituzten 135 pertsona daude eta horietatik haren bat bizi da bakarrik, 43 pertsona hain zuzen. COVID-19agatik sortutako egoeraren aurrean, pertsona horien beharrak ezagutzea du helburu martxan jarri den dinamika.

Udalak hasieratik nabarmendu du gizarte-ongizate zerbitzuak indartzea dela haren helburuetako bat: joan den urtean teknikariaren laguntzailea kontratatatu zuten eta aurten saileko teknikari lanpostua lanaldi osokoa izatera pasatzeko asmoa dute. Bide beretik, telefono deien xedea da herriko



hirugarren adinekoen momentuko beharrak ezagutzea eta horien jarraipena egitea. Deiak jasotzen lehenak bakarrik bizi diren anoetarrak izango dira eta, jarraian, gainerakoak.

Herriarren egoeraren berri jakin ondoren, gabeziei konponbidea bilatzeko dinamika ezberdinak prestatuko dituela ere jakinarazi du udalak. Pello Estanga Anoetako alkateak zaintzaren beharra nabarmendu du: "Aurrerapauso bat eman behar dugu eta horretarako tresna praktikoak eskaini nahi dizkiegu herriarrei, egunerokotasunean dituzten beharrei erantzuteko. Egoera gogorra da, baina guztion artean aurrera egingo dugu".



HIRIGINTZA

Martxoan hasiko dira Herriko Plaza berritzeko lanak

Obra bi fasetan egingo da: lehen a martxoan hasiko da, eta bigarrena, berriz, urtearen amaieran.

Guztira lau enpresak aurkeztu dute herriko plazako berritze-lanak egiteko proposamena, eta Udala aukerarik egokiena hautatzeko prozedura jarraitzen ari da. Berritze-lanak bi fasetan egingo dira: lehenengo, plazako irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dira. Martxoaren hasieran ekingo diote lehen faseari, eta lau edo bost hilabete iraungo ditu. Bigarren fasean, berriz, plaza-rako estalki berdea egingo da. Lanak urte honen amaieran edo datorrenaren hasieran hastea aurreikusten da, eta azken horiek hilabete inguru bakarrik iraungo dute.

Udalak 171.262,60 €-ko dirulaguntza jaso du obrarako, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Dirulaguntza horrekin, Udalak obraren herena ordainduko du gutxi gorabehera; kostu osoa 489.321,71 €-koa da. Herritarrek lanen nondik norakoak jakin eta azken emaitza irudika dezaten, Udalak obraren planoa jasotzen duen informazio-kartel bat jarriko du herriko plazan.

BESTELAKOAK

- Ikastolako teilatua eraberritzeko obra lanak otsailean amaituko dira.



EKINTZAK

IRAKURKETA TAILERRA

Urtarrilaren 12an irakurketa tailerra feministaren hasiera saioa izan zen. Hilabetero egingo den egitasmoa da.

ELKAR ZAINDUZ

Zentzuzko mantenduz elkar neurriak zainduko dugu. Gogoratu: garbiketa, maskara eta distantzia mantendu behar direla.


BISITAK

Anoetako Herri Ikastoleko ikasleak bisitan etorri dira liburutegira eta gustora egon dira ipuinen artean.

NOBEDADEAK

Helduen sailean:

- Turista klasea / Kattalin Miner
- Ezezagunerako bidaia / Iñaki Petxarroman
- Sotoan gordeak / Miren Gorrotxategi
- Si nos enseñaran a perder ganaríamos siempre / Albert Espinosa
- Cuidarse para cuidar / Raquel López
- La era del capitalismo de la vigilancia/ Shoshana Zuboff





EKINTZAK

Bisitak, tailerra, ipuin kontaketak

Azaroan eta abenduan Ana Apika eta Maite Franko ipuin kontalariak izan genituen liburutegian, narrazioen bidez, ipuinen mundura hurbiltzeko asmoarekin. Pozik eta gogotsu egon ziren haurrak, errepikatzen gogoarekin.

Udazkena gaia sakontzeko asmoarekin, azaroaren 18an HH3ko ikasleak liburutegian izan ziren. Gero, urtarrilaren 20an itzuli ziren liburu gehiago ikuskatzeko gogoarekin. Maisuak irakurri zien eta ikasten ari diren irakurle berri ausartak izango genituen ere.

Irakurketa tailerra feminista, Kattalin Minerren gidaritzapean, hilabetero elkartuko da liburutegian euskal idazle emakumeen lanen inguruan eztabaidatzeko.

MAILEGATUENAK

Helduak

- Bihotz handiegia / Eider Rodriguez
- El mentiroso / Mikel Santiago
- Sangre en la nieve / Jo Nesbo
- Tierra / Eloy Moreno
- Rey blanco / Juan Gómez-Jurado
- Aquitania / Eva García Sáenz de Urturi
- Postales del Este / Reyes Monforte

Haur-Gazte

- Inazuma Eleven
- Nur eta dortoken uhartea / Toti Martínez de Lezea
- Nur eta Olentzero / Toti Martínez de Lezea
- Fantasmas : novela gráfica / Raina Telgemeier



NOBEDADEAK

Haur-Gazteen sailean:

- Maskoten bizitza dibertigarria / James Campbell
- Txokolategia / Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
- Bastet : Ibaiertzeko biztanleak / Irati Merino
- Atzean uzten dudana / Alison McGhee

- Historia de la ciencia antigua
- Lo mejor del fútbol / Jon Agiriano



GAZTELEKUA

Z	A	D	K	E	G	I	H	O	T	U	S	E	A	R
E	N	T	R	E	T	E	N	I	G	A	R	R	I	A
L	D	H	N	G	A	N	E	H	A	X	S	L	K	I
A	X	E	K	A	N	A	L	U	K	S	E	U	R	R
T	K	Z	A	N	A	L	O	Z	U	A	X	A	S	R
A	D	I	S	K	I	D	E	T	A	S	U	N	A	A
H	G	K	Z	D	O	D	A	O	N	K	A	U	Z	G
G	O	E	L	G	U	I	A	H	U	A	L	S	T	I
T	S	T	X	R	L	G	K	A	S	T	I	A	T	T
A	L	A	R	E	D	I	X	O	A	A	T	T	U	R
S	E	G	R	G	D	Z	T	D	T	S	A	R	N	E
D	D	R	H	I	T	K	A	I	I	U	T	A	H	B
H	A	D	A	L	B	N	A	S	A	N	E	K	E	I
K	S	H	U	N	T	O	K	E	L	A	A	L	Z	D
Z	A	D	T	I	S	X	T	D	A	X	S	E	H	X

Gaztelekuko DBH2ko ikasleak eta Udaleko gazteria suspertzaileak, gaztelekuekin lotura dituzten 12 hitz bildu ditugu letra-zopa honetan.

**Ea bilatzen dituzuen.
Animo!**

LOATZO



**Zaindu ditzagun musika eta
musika-eskolak!**

Loatzo Musika Eskolak aurrera jarraitzen du bere musika-heziketarekin. Garai zailak dira, baina ez dugu etsiko, eta musikaren garrantzia aldarrikatu nahi dugu berriz ere, pandemiaren garai hauetan. Kultura seguru da, eta kultura behar dugu hobeto bizitzeko.

Otsailean zehar, musika-tailerraren ate irekiak egingo ditugu hainbat herritan, baita Anoetan ere. Bertan, eskolan egindako lana erakutsi eta momentu goxo bat pasatzeko aukera izango dugu.

Otsailaren 27an eta 28an, berriz, piano-jaialdia ospatuko da Andoainen. Pianista anoetarrak ere izango dira bertan; une honetan buru-belarri ari dira bertan jo beharreko abestiak ikasten eta lantzen.

Martxotik aurrera, tresna batzuen entzunaldiak egiteko asmoa dugu. Beraz, izango duzue gure berri, berandu baino lehen.



LABURRAK



Kiroldegian eta frontoian argiteria aldatu da. LED jarri du Udalak, energia kontsumoa murrizteko.



Hozpel kalean elbarrientzako aparkalekua jarri du Udalak.



Herritarrek eskatuta, banku bat jarri du Udalak kiroldegiaaren atzealdean.



Otsailaren 22tik aurrera pediatria jardunaldi osoan (08:00-15:00) arituko da Anoetako osasun zentroan, herri hauei zerbitzua emanez: Hernialde, Alkiza, Irura eta Anoeta.



KIROLDEGIKO IKASTAROAK

2. Hiruhilabetea (Urtarrila-Martxoa)

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
CROSS TRAINING	9	9
PILATES	16	0
CYCLING	6	0
GUZTIRA	31	9



NATURA BIZIZ, BASOA IKASGELA

Asko dira naturarekin harreman zuzena izateak haurraren garapenean on egiten duela frogatzen duten lanak eta ikerketak, baita naturarekin harremanik ez izatearen ondorio negatiboak aztertu dituztenak ere.

Naturarekin kontaktuan egoteak osasuntsu hazten laguntzen digu, eta arazo fisikoei (alergiak, ikusmen-arazoak, obesitatea, motrizitatearekin lotutako atzerapenak...), psikikoei (estresa, depresioa...) eta kognitiboei (hiperaktibitatea, arreta baxuko sindromea...) aurrea hartzen laguntzen du.

Naturarekin kontaktuan egotean, ikasleen jarrerak, motibazioak eta gaitasunek hobera egiten dute, eta sormena lantzen da.

Naturak ematen dizkigun lekuak eta baliabideak merkeak, anitzak eta "agortezinak" dira.

Gainera, koronabirusaren pandemiak handitu egin du eskolak kanpora irteteko beharra.

Anoetako Herri Ikastolan, Baso Eskolarekin has-teko lehen urratsak eman ditugu. Baso Eskolaren ezaugarri garrantzitsuena da basoa bera ikasgela

bihurtzen dela. Edukiak curriculum ofizialean oinarrituta daude eta natura bera izaten da baliabide didaktikorik garrantzitsuena. Jarduera gidatuak, bilguneak eta amaierako ekintzak barne hartzen baditu ere, jolas librea da Baso Eskolaren ikasketa-metodologia nagusia.

Baso Eskolako proiektu honekin aurrera egiteko ezinbestekoa izan da Anoetako Udalaren babes eta Ingurumen teknikariaren aholkua.

Ekogunea Kutxa Fundazioarekin harremanetan jarri ondoren, irakasleentzako prestakuntza-saioak antolatuko ditugu otsailean eta martxoan zehar.

Bestalde, Udaleko Ingurumen teknikariarekin elkarlanean eta Ekoguneko hezitzaileekin batera, Ikastolaren inguruko basoak bisitatu eta aztertu ditugu, Baso Eskolako eremu egokiak aukeratzeko eta prestatzen joateko.

Gure nahia proiektua udaberrian martxan jartzea da, HH eta LHko ikasle gazteenekin. Helburua etorkizun jasangarriago baterako bidea egitea da, basoa ezagutuz, gozatuz eta naturarekiko kontzientzia landuz.



Iraxulo Euskara taldea

Kaixo denoi!

Abenduaren 3an, Iraxulo Euskara Taldea aurkeztu genuen, eta urtarrilaren 16an, lehenengo bilerara irekia egin genuen herritarrekin. Hainbat herritar gerturatu zineten, eta bihotzez eskertu nahi dizuegu bertan parte hartu izana, guretzat oso garrantzitsua baita herritarren iritzia entzutea.

Bileran, Anoetan euskararen alorrean ikusten ditugun hutsunez eta gabeziez hausnartzen aritu ginen: euskarak teknologiaren eta digitalizazioaren alorrean duen presentzia (sare sozialetan, esaterako) eskasa eta, beraz, euskal hiztunen erreferentziarik eza; euskal hiztun helduok gaztelaniara jotzeko joerak gazte eta haurrengan duen eragina; haurrak eta gazteak euskarara atxikitzeke baliabiderik eza; euskara eta euskal kultura elkarrekin jorratzearen garrantzia; eta beste hainbat kontu.

Gabezia horiei erantzuteko ustezko bide, aukera eta ekimenez ere hitz egin genuen, eta herrian bidea egiten hasteko hainbat helburu eta lehenetsun markatu genituen. Orain bide hori marraztea eta eraikitzea dagokigu. Horretarako, Udalarekin, eragileekin eta herritarrekin harremanetan jartzen hasiko gara; beraz, izango duzue gure berri.



Testu honekin amaitzeko, **Egunean behin** joan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Otsailaren hasieran jarri zen martxan Tribial moduko galdera-erantzunen joko honen 6. denboraldia, eta Iraxulo Euskara Taldeko kideok talde bat sortu dugu herrian. Bertan sar zaitezke 48EF29 kodea erabiliz, eta 10 galdera erantzun beharko dituzue, ahalik eta azkarren. Zenbat eta gehiago eta azkarrago asmatu, hobe!

Edozein zalantza, ideia edo proposamen baduzue, idatzi lasai iraxuloeuskarataldea@gmail.com helbidera. Gogoz hartuko ditugu zuen ideia, kezka eta iradokizun guztiak. Bitartean, jarrai ezazue euskaraz eta euskaratik bizitzen!



Matraka talde feminista

Kaixo denoi!

Oztopoak oztopo, Matraka talde feministako kideok ez diogu elkartzeari eta antolatzeari utzi, eta hainbat ekintza egin ditugu azken asteetan eta hilabeteetan.

Azaroaren 25a gorritz markatuta dugu egutegian eta, urtero bezala, indarkeria matxista salatzeo elkarretaratzea egin genuen plazan. Sistema kapitalista patriarkalak 2020an Euskal Herrian erail zituen 4 emakumeak gogoratu genituen. Zentzu horretan, 2021. urtea hasi besterik ez da egin, eta dagoeneko Aintzane Pujanaren erailketa salatu beharrean gaude. Aski da!

Hori, ordea, izebergaren tontorra besterik ez da. Herriko kaleetan itsatsi genituen hainbat kar-telek erakusten duten moduan, indarkeria matxista ez da erailketa edo bortxaketa bakarrik, emakumeok egunero-egunero jasan behar izaten dugun mendekotasun-sistema betikotzen duen mekanismoa baizik. Horregatik, indarkeria matxistaren aurrean, autodefentsa feminista sartzeko beharra aldarrikatu genuen.

Herriko beste eragileekin elkarlanean, neguko solstizioko egitarauan parte hartu genuen, eta arrazakeriaz eta migrazio-prozesuez hausnartu genuen Sheyla lagun nikaraguarrarekin. Eske-rrik asko zure esperientziaren berri emateagatik, Sheyla!




Urtarrilean, hilekoari buruzko tailerra egin genuen Veronica Satrustegi 'Marigorri' proiektuko kidearekin, eta hilekoari buruzko mitoak nahiz zikloaren ezaugarriak ulertzeko pistak eman zizkigun. Otsailean, berriz, Covid-19aren pandemiak gudan zer ondorio izan dituen, eta horiei aurre egiteko bideak izan genituen hizpide.

Martxoan, dekolonialitateari eta antiarrazismoari heltzeko asmoa dugu, Emakumeen Mundu Marxak V. ekintzarako prestatu dituen baliabideak erabiliz. Martxoaren 6rako ekintza handi bat antolatzen ari dira Irun eta Hendaia artean, "Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!" lelopean, eta interesgarria iruditu zaigu herrian ere horri buruzko hausnarketa egitea.

Bidean ikusiko dugu elkar.

Gora borroka feminista!

Gora feminismo antipatriarkal, antikapitalista eta antiarrazista!



Aldaketaren beharraz

Urte berria hasi dugun honetan, zaharrak berri ditugula ikusi dugu. Otsailean ere itxiera perimetralarekin jarraitu dugu, eta pandemiaren amaiera ikusi ezinik gaude. Txertoaren esperantza faltsu horri helduta jaikitzen gara egunero, baina haren kudeaketa penagarria ere bistakoa da. Osasun-arloko langileen ezinegona gero eta handiagoa da, eta gu geu ere etsipenean murgilduta gaude.

Espazio autogestionatu eta politikoei dagokionez, egoerak ez du hobera egin; elkartzeko zailtasunak ditugu, eta zer esanik ez kalean bizi dugun militarizazioaz. Gogor salatu nahi ditugu Donostiako Alde Zaharrean bizitako poliziaren bortizkeria eta indarkeria, eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu ondorioak jasan zituzten guztiei. Anoetan ere nabarmena da poliziaren presentzia, eta bereziki militanteak jasaten ari garen jarraipena eta lekuz kanpoko miaketak salatu nahi ditugu.

Hala ere, egoera beltz eta ilun horretan bada argi-izpi bat, eta horren erakusgarri da jarraian aipatzera goazena. Duela urte eta erdi hasitako hausnarketa-prozesu batean, gaztetxea egokitu beharra ondorioztatu genuen, gaur egungoak asko mugatzen baitu gure jarduna, harremanetan jartzeko modua, eta abar. Horrela, lekuak berrantolatzeari ekin diogu, eta bertaratuz gero, honako aldaketa hauek ikusiko dituzue: sartu eta ezkerrera zeuden lehen bi lokalak musika-estudio bihurtu ditugu; hirugarrenean sukaldea prestatuko dugu; eta laugarrenean, berriz, libu-

rutegia. Horiek lotura zuzena izango dute barra eta eszenatokia dauden gelarekin, eta pasabidea desagertu egingo da. Txolarrera igotzeko eskaileraren azpialdea ere egokitu dugu, eta bertan hainbat konponketa eta eraikuntza egiteko leku bat gaitu dugu. Bestalde, beheko pisuko bi entsegu-lokalak Edurkara eraman ditugu, komun eta guzti. Hori guztia hobeto ulertzeko, etorri eta ikus ezazue: ateak zabalik dituzue. Eskerrak eman nahi dizkiogu Anoetako Udalarari, prozesu honetan zehar emandako laguntzagatik.

Aurrerapauso hauen garrantziaren jakitun, taimainako erantzuna eta jarduna ematen jarraitu nahi dugu hemendik aurrera ere. Era berean, badakigu zein den eskualdeko hainbat gaztetxeren egoera, eta, bide batez, besarkada bat eta gure elkartasuna bidali nahi diegu Ezpalako eta Kaxildako militanteei, lekurik gabe ere beren jarduna mirestekoa baita. Ez zaudete bakarrik!

Berrantolaketa horrekin sortuko ditugun proiektuak eta asmoak zuekin partekatzeko irrikan gaude. Borroka horretan jarraituko dugu, eta edozein egoerari edo arazori irtenbidea ematen saiatuko gara.

Mundua beste modu batera ulertzen dugunok berriz elkartzeko desiratzen gaude!



ANOETAKO GAZTE ASANBLADA



Saharako berriak



Dakizuen moduan, duela lau hilabete Marokok apurtu egin zuen Mendebaldeko Sahararekin zuen su-etena. Testuinguru horretan, liskar armatuak berrabiarazi dira lotsaren harresian, eta guk Saharako herriari babesa ematen jarraitu nahi dugu; izan ere, bere lurraldearen okupazioa eta nazioarteko komunitatearen axolagabekeria jasaten ari da duela 46 urtetik.

Gerra piztu bezain laster, hainbat kontzentrazio egin ziren eskualdean, baita Anoetan bertan ere, eta Anoetak Saharako herriari eskaini zion babesa eta elkartasuna eskertu behar ditugu.

Hala ere, gerrak bere horretan jarraitzen du eta, komunikabideek tarterik eskaintzen ez badiote ere, egoera larria da. Sare sozialetan esker etengabe iristen zaizkigu albiste gogorak, baita sahararrak Marokoko poliziaren aldetik jasaten ari diren tortura eta indarkeriaren irudiak ere, hala nola atxilotak, desagerpenak eta hilketak.

Gainera, ezin dugu ahaztu errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren sahararrek kanpotik bidaltzen zaien laguntza humanitarioari esker bizirautean dutela. COVID-19a dela eta, Espainiaren eta Aljeriaren arteko muga itxita dago eta, beraz, guretzat ezinezkoa da bildu dugun laguntza guztia kanpalekuetara bidaltzea. Kotxeak eta kamioiak prest ditugu azken kanpainatik, baita horiek betetzeko osasun- eta eskola-materiala, janaria eta haurrentzako arropak ere.

COVID-19aren ondorioz bertan behera geratu zen 2020ko Oporrak Bakean proiektua, eta duela

gutxi, jakin dugu 2021ean ere haur sahararrek ezin izango dutela kanpalekuetatik irteten eta gure etxeetara etorri. Haien zain gauden familiak oso atsekabetuta gaude, eta batez ere, ez dugu ahaztu behar udan Saharan geratuko diren haurrek galdu egingo dutela bi hilabetez desertuan bizi duten egoera latzetik irteteko aukera, baita azterketa medikoak edota elikagai egokiak izateko aukera ere.

Guk lanean jarraitzen dugu, behar duten laguntza bidaltzeko beste bide batzuk bilatzeko. Hori dela eta, aurtengo janari-bilketa ezberdina izango da. Mugak itxita daudenez, ezinezkoa izango zaigu janaria bidaltzea, eta horren ordez DIRU-BILKETA bat egingo dugu Aljerian bertan janaria eros dezaten. Beraz, egon zaitezte adi; izango duzue gure berri!

Bide batez, jakinarazi nahi dizuegu Oporrak Bakean BIZIPOZA elkartearen kanpaina bat dela orain dela bi urtetik, eta MUNDU BERRI BAT GUZTIENTZAT egitasmoaren baitan, abestia eta bideoklipa argitaratu ditugula. DVDak salgai jarri dira; beraz, horiek erosita ere lagun gaitzakezue. Sare sozialetan aurkituko duzue "Aukerak eta zu" abestia; herriko harrera-familiak ere parte hartu dugu bertan. Zuen gustukoa izatea espero dugu: https://youtu.be/7kiu_RnRfA

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Anoetako Udalarari, otsailaren 19an antolatutakoaren gisako ekimenak antolatzeagatik, "Haizearen egia" filmak eta mahai-inguruak sahararren egoera gertutik ezagutzeko aukera ematen baitigu.

SHUKRAN, SAHARA HURRA!

Kaixo, lagun:

Covid19ak eragindako pandemia-garai hauetan ere, Anoetako Ernaiko kideok lanean jarraitzen dugu. Hainbat eragilerekin elkarlanean, neguko solstizioko egitarauan parte hartu dugu, eta Sareko kideekin batera, mahainguru bat antolatu dugu euskal preso politikoen senideekin eta lagunekin.



Horrez gain, Galder Barbado eta Aitor Zelaia gazteen aurkako amarru politikoa salatu dugu. Entzutegi Nazionalak **lau urteko espetxe-zigorra** ezarri die lehergailuak egiteko materiala izatea egotzita. Gure elkartasunik eta besarkadarik handiena helarazi nahi diegu.

Ez da hilabete hauetako errepresio-kasu bakarra. Hainbat egunez, ertzain-furgoiez josita ikusi ditugu Donostiako Alde Zaharreko kaleak, eta gazte bati matelezurra ere hautsi diote. Pandemiaren aitzakiarekin, polizia-eredua are gehiago bortizten eta militarizatzen ari da, auzo eta herriak poliziekin okupatuz, kontrol soziala areagotuz, eta gazteenganako gorrotoa eta konfrontazioa bultzatuz. Ozen diogu: **gazteon aurkako kriminalizaziorik ez!**

Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi sistema kapitalista patriarkalak eraildako langileak eta emakumeak.



2020an, 71 langile eta 4 emakume erail zituzten. 2021a hasi besterik ez da egin, eta dagoeneko **5 langile hil dira beren lanpostuetan**; Joquin Beltranek, berriz, lur azpian jarraitzen du. Urta-rrilaren 2an, **Aintzane Pujanaren erailketaren** berri izan genuen, eta haren hilketagatik ikertu dituztenei sexualki esplotatu izana egotzi diete.

Eguneroko antolakuntzaren bidez, elkarren artean zaintzen eta bizitza duin baten alde borrokatzen jarraituko dugu.

Euskal gazteria aurrera!

Gora Euskal Herri sozialista, feminista eta euskalduna!



Krisi ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko politika kapitalistekin hautsi behar da

Joan den urtea greba orokorrarekin hasi genuen Hego Euskal Herrian. Mobilizazio horrek ilusioz eta konfiantzaz bete zuen langile-mugimendua. Arrakasta itzela izan zuen eta aurrerapauso benetan garrantzitsua izan zen, azken hamarkadan kendutako eskubideak berreskuratzeko borroka bateratzea planteatzen baitzuen.

Ilusioa eztabaidarekin elkartu zen: "Greba ondoren zer?". Gure planteamendua oso zehatza izan zen: ezin dugu atzerapausorik eman eta bide horretatik jarraitu behar dugu, greba-komiteak zabalduz eta indartuz, eta greba orokor gehiago eginez; horri eutsi behar diogu, gure aldarrikapenak lortu arte.

Greba orokorra altxa zuten borrokek, funtsean, aurrera jarraitzen dute, osasun-krisiaren oztopoen gainetik, ez baitago beste alternatibarik. Pentsionistak, hezkuntzako eta Osakidetzako langileak, zerbitzuen sektore pribatizatuak (jantokiak, egoitzak, etxez etxeko laguntza...), administrazioan egoera ezegonkorrean dauden 50.000 langileak... Baita itxierak eta kaleratzeak egiten ari diren enpresetako langileak ere. Baina borroka horiek guztiak banaka planteatu dira.

Sobera baldintza eta arrazoi daude greba orokorraren bideari berriro eutsi eta borrokak bateratzeko. Haserrea langileriaren zainetan bor-bor egiten ari da. Patronalek eta Madrilgo, Iruñeako eta Gasteizko Gobernuek esaten digute Aldi Baterako Enplegu Erregulazioak eta eraso guztiak onartu behar ditugula lanpostuak mantentzeko. Baina argi dago, benetan mantendu nahi dutena enpresarien irabazi ekonomikoak dira, enplegua suntsituz, zor publikoa handituz eta murrizketa gehiago eginez.

Batu ditzagun indarra k gizartea eraldatzeko.

Ezker Iraultzailea-Euskal Herria Sozialista



ERREZETA

Udaberriko ilarrak patata berriarekin eta arrautzarekin



Osagaiak

- Ilar freskoak, 200 g
- Patata berria, 200 g
- Tipulatxa
- 2 arrautza
- Baratxuri-hagin bat
- Oliba-olioa



Errezeta

1. Txikitu baratxuria eta tipulatxa eta jarri egosten, oliba-olio pixka batekin.
2. Jarri egosten ilarren lekak, gero saltsa egiteko.
3. Gehitu ilarrak erregositako barazkiei eta salteatu. Barazkien gainean, jarri bi arrautza eta utzi egiten, barazkien berotasunarekin.
4. Zuritu patatak, egosi uretan eta birrindu, patata-purea egin arte.
5. Osagaiak platerrean jartzean, jarri oinarrian patata-purea eta bota ilarrak gainetik.
6. Amaitzeko, jarri arrautza gainean eta ondu oliba-olioarekin eta gatzarekin.

Iturria: EITB, Txoriene.

UDALEKO KULTUR INFORMAZIOA JASO NAHI DUZU? E-MAILEZ EDO WHASAPPEZ?



Bidali e-maila (kultura@anoeta.eus)
edo whatsapp (688 601 679),
zure izen-abizenak adieraziz, eta hasiko gara
informazioa bidaltzen nahi duzun eran.